

# RASFF TXOSTENA

---

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

**ELIKAGAIAK**

2012ko BIGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

Aurreko lauhilekoarekin erkatzea

### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2012ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiari buruzko **949 jakinarazpen** izan dira. Horietatik **182 alertak izan dira (% 19)**, **322 informazio-jakinazpenak (% 34)** eta **445 mugan egin diren ukapenak (% 47)**.



### JAKINARAZPENEN JATORRIA


Honako hauek izan dira kutsatutako elikagaien jatorrizko herrialdeak:

**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **28,5 Txinakoak** izan dira, eta jarraian **India** dugu: kasuen % **15,5**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak **Polonia** eta **Espainia** izan dira: % **13,5** eta % **13**, hurrenez hurren. **Afrikari** dagokionez, **Maroko** gailentzen da herrialde guztien artean (jakinarazpenen % **26,5**). Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEB** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **34**) eta, jarraian, **Brasil** (% **24**).



### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2012ko bigarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 949 alerta eta jakinarazpen** berri eman ditu. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:



### KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

**Mikotoxinek** eragindako kutsaduren artean, kasuen % **70 Aflatoxinek** eragindakoak dira, eta horrelakoetan, **kakahueteak** kutsaduren % **64** eragin ditu. Bestalde, kasu gehienetan (% **76**) kakahuetea **Asiatik** zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella spk** kutsaduren % **51,5** eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **85**ean. Lauhileko honetan ez dago gainerakoen artean nabarmentzen den produkturik, eta inplikaturako produktuak zein herrialdeak oso banatuta egon dira. *Salmonella* exotikoei dagokienez, % 6 *Salmonella enteritidis* dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 86 eta kasu guztietan Europa izan da jatorrizko herrialdea) eta % 9 *Salmonella typhimurium* (haragiak eragin ditu kasuen % 96, eta % 89an Europa izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **Listeria monocytogenes** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % 14. Inplikaturako produktuei dagokienez, hiru taldetan daude banatuta: **izokin ketua (% 33,5), gazta (% 33) eta haragi-produktuak (% 28,5)**. Listeriak eragindako jakinarazpen guztiak **Europan** egin dira.

Kutsatzaile kimikoei dagokienez, **gehigarriak eta koloratzaileak** dira eragile nagusiak (**kasuen % 67**) eta, kasu honetan, *Salmonellaren* kasuan bezalaxe, ez dago ez produktu, ez herrialde nabariagorik.

**Pestiziden eta sendagaien hondakin**en kasuan, **pestizidak % 57** izan dira eta horien artean **barazkiek eragin dituzte jakinarazpen gehien (% 62)**. Barazkien % **66,5 asiarrak** dira. **Sendagai-hondakinek** aurreko lauhilekoan baino hainbat jakinarazpen gehiago eragin dituzte (kasuen % **43**). **Elikagai osagarriak eta dietetikoak** nabarmentzen dira (% **55**), eta gehienetan (% **65**) **AEBkoak** izan dira.

**Metal astun**ei buruz esan behar da merkurioak eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **51,5**. **Ezpata-arraina** jakinarazpenen % **59**an egon da inplikaturako eta arrain horren jatorria **Espainia** izan da % **48**an.

ITURRIA	KOP.	AGENTEA	KOP. (%)	INPLIKATUTAKO PRODUKTUAK	KOP. (%)	JATORRIA	KOP. (%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	132	Aflatoxinak	92 (% 70)	kakahueteak	59 (% 64)	Asia	45 (% 76)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	217	<b>Salmonella sp.</b>	112 (% 51,5)		ez dago produktu nabariagorik kopuru handiagoan		
		Salmonella sp.	95 (% 85)	haragia, haziak belar usaintsuak	ez dago produktu nabariagorik kopuru handiagoan		
		S.enteritidis	7 (% 6)	oilaskoak	6 (% 86)	Europa	6 (% 100)
		S.typhimurium	10 (% 9)	haragia	9 (% 90)	Europa	8 (% 89)
<b>Kutsadura kimikoa</b>	97	Koloratzaileak eta gehigarriak	65 (% 67)	espezieak, saltsak gozoak, ozpinetakoak	ez dago produktu nabariagorik kopuru handiagoan		
<b>Hondakinak</b>	217	Pestizidak	124 (% 57)	barazkiak	77 (% 62)	Asia	51 (% 66,5)
		Sendagaiak	93 (% 43)	osagarri dietetikoak	51 (% 55)	AEB	33 (% 65)
<b>Metal astunak</b>	76	Merkurioa	39 (% 51,5)	ezpata-arraina	23 (% 59)	Espainia	11 (% 48)

## AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

---

- **Mikotoxinek** eragindako jakinarazpenen kopuruak **behera** egin du (% 20tik % 14ra).
- **Kutsadura biologikoek** eragindako jakinarazpen eta alerten kopuruak, berriz, **gora** egin du (% 17,5etik % 23ra).
- **Aflatoxinek** eragindako kasuen kopuruak **behera** egin du (155 jakinarazpen izan ziren, eta orain 92 izan dira).
- **Gehigarrien kasuan**, kopuruak **nabarmen egin du gora** (% 39tik % 67ra).
- **Sendagaien hondakinek** jakinarazpen **gehiago** eragin dituzte (% 30etik % 43ra).
- **Pestiziden hondakinek**, berriz, **askoz ere jakinarazpen gutxiago** eragin dituzte (190 izan ziren, eta orain 124 izan dira).
- Aflatoxinek eragindako jakinarazpenetan **kakahuetea** egon da inplikatura aurreko lauhilekoan baino **askoz ere kasu gehiagotan** (aurreko lauhilekoan % 37, bigarren lauhileko honetan % 64).